

Online ikastaroa

- Kaixo! Ni Lukas Areitio naiz, irakaslea.
- Hepa, Lukas! Ni Yolanda Gomez naiz.
- Kaixo, Yolanda, zer moduz?
- Oso ondo!
- Egun on!
- Egun on! Nor zara zu?
- Miren Agirre naiz.
- Kaixo, Miren. Zelan?
- Ondo, eskerrik asko.
- Kaixo denoi. Ni Xabier naiz.
- Kaixo! Xabier Etxebarria zara?
- Ez, ni ez naiz Xabier Etxebarria, ni Xabier Ortiz naiz.
- Ados. Ongi etorri. Xabier Etxebarria falta da, orduan.
- Ez, hemen nago!
- A, kaixo, Xabier. Zelan?
- Ondo, eskerrik asko, eta zu?
- Primeran!